

# ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA OINARRIAK

Irakasgai honetan enpresa baten administrazioko departamentuan murgilduko gara eta ondorengo gaiak ikuspuntu praktiko batetik landuko ditugu:

## 1.-Start Innova programa.

Proiektuaren helburua ikasleen artean ekintzailetasuna sustatzea da.

Startinnova programaren eduki teorikoak on-line plataforma baten bidez jorratzen dira. Multimedia edukien bidez, enpresa plan bat nola egiten den ikasten da.

Ikasturtean zehar ikasleek enpresa ideia bat garatu behar dute Canvas metodoa erabilita. Ondoren, sortutako negozio plan horrekin, probintziako beste ikastetxeekin lehiaketa batean parte hartzen dute. Irabazleentzat sari bereziak egoten dira.



## 2.-Kontabilitatea.

Enpresetako administrazio departamentuko oinarrizko eginkizun bat kontabilitatea eramatea da. Ikasturtean zehar ikasleek enpresa baten kontabilitatea eramaten ikasiko dute. Gai hau modu praktikoan landuko da, eduki teorikoen inguruko hainbat ariketen bidez.



## 3.-Lan mundua.

Langileek enpresetan izaten dituzten lan baldintzak ezagutuko ditugu. Horretarako, lan arloko legedia ikasiko dugu. Alde batetik, Langileen Estatutuaren eta hitzarmen kolektiboen atal garrantzitsuenak ikusiko ditugu. Beste aldetik, lan kontratu ezberdinak ezagutu eta nominak interpretatzen ikasiko dugu. Azkenik, lanbide ezberdinen atzean dauden lan baldintzak azalduko ditugu. Azken honi garrantzi handia emango diogu. Izan ere, 2.batxilergoko ikasleek Unibertsitateko edo Lanbide Heziketako ikasketa batzuk aukeratu behar dituzte eta, horretarako, garrantzitsua da ikasketa bakoitzarekin etorkizunean izan ditzaketan lan baldintza ezberdinak zeintzuk diren ezagutzea.

